

2004KO ABENDUAREN 20KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta lauko abenduaren hogeian, iluntzeko zazpi terdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Es-tensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti, Juan Ma-nuel Serna Portugal, Milagros Alvarez Novoa eta Angel Olaso Villalba.

Arantxa Zumelaga Agirre zinegotzia noiz bertaratzen den aktan adieraziko da.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpe-nen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

II.- 2005EKO AURREKONTUA.-

Alkateak 2005eko aurrekontuaren azalpena egiten du gastuen VI. kapituluko inber-tsioak banaka banaka adieraziz. Esaten du baita ere zenbait konpromisu kreditu planteatzen direla, konpromiso kreditu hauek aurrekontu oinarrietan xehetzen dira, baina aurtengo aurrekontuaren likidazioa egiterakoan gerakinak hortarako adina ematen badu behin-tzat, hauek kendu eta gerakin hori erabiliko dela. Esaten du baita ere sarreretan aurre-kontu zirriborroan azaltzen ez zen kontzeptu bat sartu dela, Aresoko merkataritza lokala-ren besterenganatzea, 150.000,- €ko zenbatekoz.

2005eko aurrekontu hau, Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontuak osatzen dute.

Une honetan Arantxa Zumelaga zinegotzia bertaratu da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du gastuetako IV. kapitulu Udalbide Elkartearen-tzat dirulaguntza aurrikusten dela eta aurreko urteetan esan izan duten bezala beraiek horren aurka daudela, kontzeptu horrek nazio eraikuntza izaera ematen diolako aurre-kontuari. Esaten du baita ere dirulaguntzen IV. kapitulu horretan Goierri Telebistarentzat dirulaguntza aurrikusten dela eta beraiek horren aurka daudela ze Goierri Telebista enpre-sa pribatua izanik berak finantziatu beharko lukeela bere burua eta ez Herri Administra-zioak. Eta esandako guzti honengatik Udal aurrekontuaren aurka bozkatuko dutela. Bes-talde, Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A.ren aurrekontua onartzeko bi bozketa egiten diren ala bozketa bakarra egin den galdetzen du, eta gehitzen du bi

bozketa izango balira Lazkao Lantzen, S.A.ren aurrekontua onartzeko inolako eragozpenik ez luketela.

Alkateak erantzuten dio onarpenera jartzen dena Udal aurrekontu osoa dela eta bera bozketa bakarra dela.

Olaso zinegotziak (PP) II. kapituluko zenbait partidei buruzko argibideak eskatu eta hauen erantzuna jaso ondoren esaten du Udalbiltzari dirulaguntzarekin ez dagoela ados ze funtzio horiek egiteko hor daudela Batzar Nagusiak eta Goierri Telebistari dirulaguntzekin ere ez dagoela ados eta aurrekontuaren aurka bozkatuko duela.

Alkateak Udalbiltza eta Goierri Telebistari dirulaguntzen inguruan erantzuten die esanez Udalbiltza eta Batzar Nagusiei buruz iaz esandako erantzun bera dela, hau da, funtzio ezberdinak dituztela, eta Goierri Telebistari dagokionean berriz esaten du euskararekiko egiten den diskriminazio positiboagatik ematen zaiola dirulaguntza. Esaten die baita ere dena den poza ematen diola aurrekontuaren aurka bozkatzeko dituzten arrazoiak bi gauza hauek bakarrik direla jakiteak.

Guzti honen ondoren, bozketan jartzen da 2005eko aurrekontua eta Osoko Bilkurak, aldeko hamar (10) botu (EAJ, EA) eta aurkako hiru (3) botuz (PSE-EE, PP) honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehenena.- 2005 urterako udal aurrekontua haserako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapituluko laburpenak honako hauek dira:

2005EKO UDAL BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	955.000,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	70.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	709.500,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.364.500,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	22.500,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	150.000,00 €
SARRERAK GUZTIRA			4.271.500,00 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.038.000,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	1.986.860,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	305.240,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	820.900,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	119.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	1.000,00 €

GASTUAK GUZTIRA	4.271.500,00 €
-----------------------	----------------

2005EKO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	2.053.535,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	50.571,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	350.000,00 €

SARRERAK GUZTIRA	2.454.106,00 €
------------------------	----------------

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	124.500,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	3.646,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.975.960,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	350.000,00 €

GASTUAK GUZTIRA	2.454.106,00 €
-----------------------	----------------

2005EKO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEGO ZERGAK	955.000,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	70.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	709.500,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.364.500,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	22.500,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	2.053.535,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	50.571,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	350.000,00 €

SARRERAK GUZTIRA	6.725.606,00 €
------------------------	----------------

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.038.000,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	2.073.360,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	3.646,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	245.240,00 €

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	2.894.860,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	119.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA-PASIBOAK	350.000,00 €
<u>GASTUAK GUZTIRA</u>			<u>6.725.606,00 €</u>

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

III.- 2005EKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA.-

Jarraian eta Hazienda, Pertsonal eta Gobernamentu Batzordetik, Osoko Bilkurara aurkeztu dira bere onarpenerako 2005erako Udal Langileen Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu egiten ditu.

IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Olaso zinegotziak (PP) AA.SS.en berrikuskaketa nola dagoen galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio behin betiko dokumentua idazten ari dela.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.